

Funtsezko baliabideak

Ikiguren proiektua aurrera eramateko baliabide fisiko, intelektual, giza baliabideak eta finantza baliabideak erabiliko ditugu.

Baliabide fisikoei dagokienez, lokal bat beharko dogu eta lokal hori Landerren etxea izango da, bera baitauka etxe handia eta logela bat ez duena erabiltzen, beraz bertan lan egingo dugu. Logela horretan ere, material guztia gordeko dugu. Horrez gain, ordenagailu eta mugikor bat erabiliko dugu. Ordenagailua jadanik daukagu beraz ez dugu berri bat erosi behar eta mugikorrak gureak erabiliko ditugu. Webguneari dagokionez, uste dugu beharrezkoa dela bat izatea, azken batean, bertan enpresaren datuak zein gure biografia ipiniko dugulako, hurrengo bilerak eta emaitzak argitaratzeaz gain. Webgunea Lucíaren amak egingo du berak horretan lan egiten duelako. Bilketarako kontenedoreak, eskularruak, plastikozko poltsak, erratzak... erabiliko ditugu, eta artelanak edo artista lokalak bildutako zabor guztitik bakoitzak behar duena erabiliko du.

Bestalde, baliabide intelektualak erabiliko ditugu. Hasteko, ikastolan ikasitako ezagutzak praktikan jarriko ditugu. Gainera, gure irakaslearen zein mentoreen aholkuak jaso ditugu eta horrekin gure enpresa zein produktua hobetu ditugu. Bakoitzak ez du ezagutza finkoak edukiko baizik eta orokorrak hau da nola erabili erratzak edo materiala. Era berean, uste dugu gure boluntarioak babestu behar ditugula eta horretarako Segurartik kontratatuko dugu arazo mediko baten aurrean konponbideak aurkitzeko.

Azkenik, giza baliabideak ere beharrezkoak izango dira azken baten, nahiz eta gu izan koordinatzaileak eta enpresaren burua, boluntarioak behar ditugulako garbiketak egiteko. Horregatik, 4 koordinatzaile izango gara eta guk ekitaldi guztiak antolatuko ditugu, marketina ere gure esku egongo da baita, Udal eta erakunde publiko, enpresa zein ikastetxeekin harremanetan jartzearekin batera. Horrekin uste dugu lana nahiko orekatuta egongo dela eta guztiok lan karga antzekoa izango dugula. Horrekin esan nahi dugu, guztiok marketing eta enpresaren kontuak aurrera eramango ditugula, ez guk kontratatutako langile bat. Hala eta guztiz ere, nahiz eta laurok guztia egin bakotzak arlo baten koordinatzailea izango da: Lucia marketina, Iñigo udalekin kontaktuan ipintea, Lander materiala erostea eta kudeatzea eta azkenik Ander leku zein herri aproposak bilatzearen kordinatzailea izango da eta guri finantzatzeko dizkiguten enpresak bilatuko ditu.

Finantzia baliabideei dagokienez, beharrezkoa dugun dirua lortzeko, batez ere, kapital soziala erabiliko dugu, hau da, guk jarriko dugu jarri beharreko dirua. Diru hori, kostu finkoak estali behar dituzte (3075 €) eta lehen ekintzaren kostu aldakorrak (4670 €), bigarren ekintza finantzatzeko lehen ekintzarekin irabaziko dugunarekin finantziatuko dugulako. Beraz, jarritako guztizkoa 7745€ dira, lau garenez, bakoitzak 1936,25 € jarriko du.